# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia — Iruña, 2023ko urriaren 31 — 27. ZK.


**A U R K I B I D E A**

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**


—11-23/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (3. or.).

—11-23/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eskatzera administrazio-espediente ebatzigabeak onetsi eta inbertsioak handitu ditzan, Iruña-Madril eta Iruña-Jaka-Huesca-Lleida autobietarako obrak azkartze aldera. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (4. or.).

—11-23/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erabaki, defini eta jakinaraz ditzan Abiadura Handiko Trena Nafarroara iristeko epeak eta konpromisoak. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—11-23/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Parlamentuari igor diezaion Nafarroako mugikortasun jasangarriari buruzko foru-lege proiektu bat. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (6. or.).

—11-23/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (7. or.).

—11-23/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita Espainiako gobernuari eska diezaion ebatzi gabe dauden administrazio-espedienteak onetsi eta inbertsioak handitzea, Abiadura Handiko trenaren obrak azkartze aldera. Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

—11-23/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Gazako zerrendako gatazkako aldeei exijitzen baitzaie nazioarteko legeria bete dezaten, bereziki NBEaren ebazpenak. EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (9. or.).

—11-23/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroan emakumeen eskubideak babesteko eta genero indarkeria desagerrarazteko konpromisoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—PER20230032. Deialdia, lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hamaika administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta bat Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (12. or.).

—11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (25. or.).

—11-23/CIE-00002. Parlamentuan batzorde berezi bat sortzea, Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentziak egindako txostena nahiz Parlamentuaren 2018ko azaroaren 8ko Osoko Bilkuran onetsitako erabakia betetzeari buruzko jarraipena eta kontrola egiteko. Funtzionamendu-arau zehatzak (26. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# 11-23/MOC-00054. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan

*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral bat egiteari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Donejakue Bideari esker, jatorri askotako bisitariak heldu dira urtero Nafarroara.

Donejakue urtea da Donejakue Bidearen nahiz haren inguruko eskaintzaren ikusgarritasunak goia jotzen duen unea, baina horrek aldez aurretiko plangintza egitea, egokitzea eta ondoren baloratzea eta lortutako hobekuntzak sendotzea eskatzen du.

Dibulgazioari eta aurretiazko prestakuntzari esker, prest gaude hurrengo Donejakue urtean –2027an– milaka eta milaka erromesi ongietorria egiteko erronka gure gain hartzeko; hori prestatzen, ordea, 2024an hasi behar dugu.

Donejakue urtearen atarikoaren, garapenaren nahiz ondorenaren ikuspegi osoa behar dugu, hurrengo Donejakue urteak prestatzeko oinarri modura balioko diguna, begi-bistatik galdu gabe Donejakue Bidearen Mahaian egindako lana, zeina data hain seinalatu horretaz harago baitoa.

Donejakue Bideak berdintasunaren eta jasangarritasunaren ikusmoldean aurrerabidea eginen duen XXI. mendeko ereduan sakondu behar du, Donejakue Bidearekiko lotura duten toki entitateekin eta elkarteekin lankidetzan arituz aldiro, esperientziaren muina galdu gabe.

Aintzat hartu behar da ebaluazio global bat, egiten diren jarduketek iraun dezaten eta Bidearen nahiz Bidean dauden entitateen onerako izan daitezen.

Ebazpen-proposamena.

1. Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2027ko Donejakue urtearen karietara, urtearen aurreko nahiz ondoreneko programazioa eta antolamendua eginez, Bidea babesteko eta erromesari laguntza emateko programa bat barne.

Iruñean, 2023ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

# 11-23/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eskatzera administrazio-espediente ebatzigabeak onetsi eta inbertsioak handitu ditzan, Iruña-Madril eta Iruña-Jaka-Huesca-Lleida autobietarako obrak azkartze aldera

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eskatzera administrazio-espediente ebatzigabeak onetsi eta inbertsioak handitu ditzan, Iruña-Madril eta Iruña-Jaka-Huesca-Lleida autobietarako obrak azkartze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lurralde Kohesiorako Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Eskualdeko garapena, lurraldeen lehiakortasuna eta herritarren ongizateak zerikusi handia dute, besteak beste, oinarrizko azpiegitura egokiak izatearekin, lagungarriak baitira Nafarroa lehiakorragoa eta interesgarriagoa izan dadin.

Lurraldea egituratzen duten azpiegituren artean, pertsonen eta salgaien garraio-sarea oso garrantzitsua da. Eta hala da erkidegoa egituratzen duelako eta, ondorioz, inbertsioa erakarri eta ongizatea sortzen duelako.

Nafarroa ongi kokatuta dago geografikoki, giza baliabide bikainak eta prestakuntza handikoak ditu, bai eta zerbitzu publiko ugari eta beste faktore egoki asko ere, eskualde eredugarri eta erakargarria izateko.

Azken hamarkadetan ez dira behar bezala aprobetxatu dauden baliabideak, eta, horren ondorioz, atzera geratu da, isolatuta eta garapen-ardatzetatik urrunduta, eta, hala, inbertsiorako, herritarren bizi kalitatea hobetzeko eta lehiakorragoa izateko erkidego erakargarria izateari utzi dio.

Errepide bidezko komunikazio-bideak ezinbestekoak dira Nafarroarentzat, salgaien eta pertsonen sarrera-irteerak azkartasunez gerturatzen baititu. Horiek eraikiz gero, Foru Komunitatearen nabarmen lehiakorragoa eta erakargarriagoa izanen litzateke.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion ebatzi gabe dauden administrazio-espedienteak onetsi eta inbertsioak handitu ditzan, Iruña-Madril, Iruña-Jaka-Huesca-Lleida autobietako obrak azkartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrizketa has dezala Aragoi, Katalunia, Valentzia, Euskadi, Errioxa eta Gaztela eta Leongo erkidegoekin eta komunikaziorako azpiegituren eraikuntzan interesa duten beste eragile batzuekin, barnekoak nahiz kanpokoak, interes komunean oinarrituriko eskaera bateratu bat adosteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernua premia dezan Iruña-Madril autobideko Castejón-Medinaceli zatien lizitazioa hasi, arindu, ebatzi eta exiji dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernua premia dezan Iruña-Jaka, Iruña-Huesca eta Iruña-Lleida autobia zatien lizitazioa hasi, ebatzi eta exiji dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 24an

Eleduna: Javier García Jiménez

# 11-23/MOC-00056. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erabaki, defini eta jakinaraz ditzan Abiadura Handiko Trena Nafarroara iristeko epeak eta konpromisoak

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erabaki, defini eta jakinaraz ditzan Abiadura Handiko Trena Nafarroara iristeko epeak eta konpromisoak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erabaki, definitu eta aditzera eman ditzan Abiadura Handiko Trena Nafarroara iristeko epeak eta konpromisoak.

Zioen azalpena.

Prestazio handien sarea oso aktibo erabilgarria da hura gara dezakeen herrialdearentzat. Denbora asko behar da eta inbertsio handia eskatzen du trenbide-sare hori eraikitzeak, baina haren balio-bizitza os luzea da.

Nafarroako korridorea Atlantikoko korridorearen barruan dago, Zaragozatik Frantziarako irteera baita, Iruñetik igarota. Horrek nazioarteko sare horrekiko konexioa ziurtatzen du.

Nafarroako egungo trenbide-sarearen karga (bidaiariena eta salgaiena), 150 urtetik gorakoa eta bide bakarrekoa, oso handia da. Castejón/Iruñea tartea gainezka dago. Abiadura handiko sare berria edukitzeak aukera emango du sare konbentzionalean ahalmen handiagoa izateko beste garraio-segmentu batzuentzat, diseinu-estandar berrietara egokitzen bada.

Beharrezkoa da abiadura handiko trenaren eraikuntza bizkortzea Nafarroako tartean, hamar urteko epean Iruña-Madril/Bartzelona bidaiari-ibilbideak abiadura handian egin ahal izateko. Horretarako, 2.550 milioi euro inbertitzeko eskatzen zaio Estatuari, funtsezko azpiegitura baita eskualdearen garapen sozioekonomikorako.

AHTa 10 urte barru, gutxi gorabehera, irits liteke Iruñera Madril-Bartzelona lineatik. Gogora dezagun 2023an Espainiako penintsulako biztanleen % 77k abiadura handiko trenbidea duela. Nafarrak azpiegitura horretatik bazter utzitako % 23koak gara.

Foru Komunitateari 233 milioi euroko inbertsioa besterik ez zaio egokitu 30 urtean –70 milioi 2022an–, Espainiako abiadura handian inbertitutako milako 4. Gaur egungo inbertsio-erritmoan, abiadura handiko Nafarroako korridorea, Euskal Y-arekiko konexioa barne, ez litzateke errealitate bat izango 60 urte barrura arte.

Ebazpen-proposamena.

1. Abiadura Handiko Trenaren etorrera defendatzen dugun taldeen eta Nafarroako gizarte zibilaren arteko akordio politiko eta sozial zabala sinatzea.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Espainiako Gobernuarekin hitzarmen bat sina dezan, Nafarroatik abiadura handiko trenaren obren garapena gidatu eta bultzatzeko, eta, horrela, obrak arinago egiteko.

3. Itun bat sinatzea Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Aragoiko Gobernuaren artean, Estatuari exijitze aldera abiadura handiko trenaren garapen bateratu eta berehalakoa gure erkidegoetan.

4. Nafarroako Gobernuaren konpromisoa Iruñeko kiribilgunea kendu eta geltoki berria ahalik eta lasterren eraikitzeko.

5. Nafarroako Gobernua premiatzea Espainiako Gobernuarekin adostu, definitu eta argitara ditzan Estatuak Nafarroako abiadura handiko trenaren obrak egiteko faseetan hartuko dituen epeeta inbertsio-konpromisoak.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

# 11-23/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Parlamentuari igor diezaion Nafarroako mugikortasun jasangarriari buruzko foru-lege proiektu bat

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Parlamentuari igor diezaion Nafarroako mugikortasun jasangarriari buruzko foru-lege proiektu bat.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 220. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

Hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko Europako Parlamentuaren 2014ko txostenaren (2014/2242) zioen azalpenean, zeinaren azken testua Europako Parlamentuaren 2015eko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez onetsi baitzen, mugikortasuna herritarren eskubidetzat hartzen zen, honako hau ezarrita: «Mugikortasuna ez da berez helburu bat; aitzitik, guztiondako eskubidea izan beharko litzateke (…). Mugikortasunaren xedea da guztiei –mugikortasun murriztua duten pertsonei ere– erraztea ikastetxeetarako, lanerako, kulturarako, aisialdi-jardueretarako eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea (...)”.

Bestalde,Klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 44. artikuluak ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarria sustatzeko neurriak hartuko dituztela, horien bidez erdietsi ahal izateko zenbait helburu, mugikortasunaren eta garraioaren sektorean, berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketari dagokionez, foru lege honetan jasotzen diren helburuekin bat datozenak.

Era berean, Nafarroako administrazio publikoek mugikortasun eta garraioaren arloan beteko dituzten politiken oinarrizko printzipioak zehazten dira, hauexek:

a) Desplazamenduen banaketa modalean mugikortasun pribatu eta motordunaren pisua gutxitzea.

b) Motorrik gabeko mugikortasuna, bereziki hiriguneetan.

c) Hiriko eta hiri arteko garraio publiko kolektiboa eta partikularren artean partekatutako ibilgailuak eta intermodalitatea sustatzea, arreta berezia jarriz landa eremuko herriei.

d) Oinezkoen eta bizikleten mugikortasun aktiboa sustatzea.

e) Bidaiarien eta salgaien errepidetik trenbiderako aldaketa modala sustatzea.

f) Irisgarritasuna hobetzea.

g) Segurtasuna hobetzea.

h) Energiaren kontsumoa murriztea eta zero isurketako ibilgailuetarako trantsizioa.

Artikulu horren 3. apartatuan adierazten da administrazio publikoek koordinaturik jardungo dutela eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokiola jarduteko lerro estrategikoak ezartzea eta koordinatzea. Horretarako, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriko Plan Zuzentzailea onetsi eta egikarituko du. Aipatutako printzipioak plan horretan gehituko dira, isurketak gutxitzeko eta esperotako helburuak betetzeko neurri espezifikoak zehaztuta.

Bestalde, foru lege beraren hirugarren xedapen gehigarriak honako hau xedatzen du: “Foru lege honetan ezartzen diren mugikortasun jasangarriaren, mugikortasun elektrikoaren eta zero isurketen sustapenerako neurriak betetzeko indargarri eta osagarri gisa, Nafarroako Gobernuak mugikortasun jasangarriari buruzko foru-lege proiektu bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari”.

2018an, Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzentzailearen (2018-2030) proposamena partaidetza publikoan jarri zen, baina azkenean ez zen onetsi.

Hori dela-eta, honako erabaki hau hartzea proposatzen dugu:

Bakarra.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2024ko irailaren 30a baino lehen Parlamentura bidal dezan Nafarroako mugikortasun jasangarriari buruzko foru-lege proiektu bat.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

## 11-23/MOC-00058. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin zonan Ur Edangarrirako Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Larraga-Lerin aldean Edateko Uren Araztegi bat eraiki dezan, Izarbeibarko eta Jurramendiko Mankomunitateek partekatzekoa Egaren ibaiertzeko eta Izarbeibarko herriek Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarako duten loturarekin.

Zioen azalpena.

Ega ibaiak urteak daramatza akidura-zantzuak adierazten klima-aldaketagatik, baina batez ere iturburuetatik zuzenean egiten diren ur-erauzketengatik, edo Lokizko akuiferoko putzuetatik egindakoengatik, Estellerriko herri asko hornitzeko. Jakina, ez gaude erauzketa horien aurka, baina estrategia alda dadin nahi dugu, ekonomiaren eta ekologiaren ikuspuntutik beste alternatiba jasangarriagoak bila daitezen eta, aldi berean, kontsumo jasangarriagoak lortzeko ahalegina egin dadin, hornikuntza- eta saneamendu-zerbitzu egokiekin, oinarrizko eskubide unibertsala baita. Edateko Uren Araztegia aurretik garatzeak klima-aldaketaren aurkako borroka sustatuko du, uren arloko ekonomia zirkularraren aldeko apustuak garapen ekonomiko eta soziala lagunduko du, giza osasuna zainduko du eta gutxienean utziko du ekosistemekiko inpaktuak.

Uraren ziklo integralaren 2019ko maiatzaren 8ko plan zuzendariak honako hau dio:

“Ega ibaiari dagokionez, etorkizuneko kontsumo-balioespenak zuzendu dira, industria-zuzkidurak sartu baitira, eta aurreratu egin da denboran Nafarroako Ubidearekiko konexioa, zeina 2024tik 2027ra bitarte eginen baita, halako moduan non Mendazan Lokizko akuiferoko erauzketa murriztuko baita urtean 3,81 hm3-ra eta Antzingo putzukoa abandonatuko baita”.

Ubagua ibaiaren egoera are kezkagarriagoa da, Errezuren sorburuan bertan egiten den ur-bilketa dela-eta. Hona Errezuko Kontzejuko arduradunek egindako salaketaren testua:

"Uda honetan harrituta ikusten ari gara Izarbeibarko Mankomunitatea –Ubagua ibaian ur-bilketa egiteko baimena dauka– ez dela emari ekologiko hori betetzen ari (% 40 azpitik dago EA85 neurketa-puntuan, Errezuko ur-emarian) , eta sorburu horretako hargunean ere ur guztia biltzeari ekin zaio, halako moduan non ibaiaren 200 metro lehortu diren".

Kasu honetan, entitateak honako hau eskatzen dio plan zuzendariari:

"Larrialdi edo lehorte kasuetarako, Nafarroako Ubidetiko hornidura-puntu alternatibo bat adostu beharko litzateke Nafarroako Gobernuarekin, kalitatezko ur-hornidura bermatzeko Ziraukiko Edateko Uren Araztegiari (egun ez dago sartuta 2019-2030 Plan Zuzendarian)".

Esan bezala, Ega eta Ubagua ibaiak arrisku ekologikoan daude, eta akuiferoen abusuzko erabileraren eta klima-aldaketaren ondorioz albait lasterren hartu behar dira ur-bilketen jasangarritasunerako eta horiek arautzeko neurriak, ahal den guztia murriztuz Mendazako putzuetako eta Ubaguaren sorburuko erauzketak, toki-entitate horien ur-premiak Nafarroako Ubidetik osatuz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendaria aurreratu eta osatu dezan Larraga-Leringo aldean Edateko Uren Araztegi bat eginez, Nafarroako Ubidea baliatuta albait lasterren, bi entitateekin adostuta erabilerari buruzko guztia.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-23/MOC-00059. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita Espainiako gobernuari eska diezaion ebatzi gabe dauden administrazio-espedienteak onetsi eta inbertsioak handitzea, Abiadura Handiko trenaren obrak azkartze aldera

*NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita Espainiako gobernuari eska diezaion ebatzi gabe dauden administrazio-espedienteak onetsi eta inbertsioak handitzea, Abiadura Handiko trenaren obrak azkartze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lurralde Kohesiorako Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Eskualdeko garapena, lurraldeen lehiakortasuna eta herritarren ongizateak zerikusi handia dute, besteak beste, oinarrizko azpiegitura egokiak izatearekin, lagungarriak baitira Nafarroa lehiakorragoa eta interesgarriagoa izan dadin.

Lurraldea egituratzen duten azpiegituren artean, pertsonen eta salgaien garraio-sarea oso garrantzitsua da. Eta hala da erkidegoa egituratzen duelako eta, ondorioz, inbertsioa erakarri eta ongizatea sortzen duelako.

Madril, Bartzelona edo Europarekiko komunikazioek eta, ondorioz, garapen ekonomikoko ardatz handiekiko komunikazioek kezkatzeko

moduko atzerapena dute, azken urteetan inbertsiorik egin ez delako.

Bereziki kezkagarria da AHTaren auzia. Trenazpiegitura hori interes handikoa da Nafarroako ekonomiarentzat eta biztanleentzat, eta ezin da Europa barreneko garraio-saretik kanpo geratu, hura eraikitzea are gehiago atzeratzeagatik.

Nafarroako Gobernua jarri beharko litzateke erreklamazio horren gidaritzan, eta inbertsio handiago baten eskaria indartsuago eginen luketen babesak bilatzeko lan egin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernuari eskatzen dio onesteke dauden administrazio-espedienteak onets ditzan eta AHTko obrak bizkortzeko inbertsioak handitu ditzan.

2. Gobernu zentrala premiatzen du AHTaren Aragoiko eta Nafarroako tarteak eraikitzeko prozesua azkartu dezan, inbertsioa areagotu dezan eta tarte horiek garatzeko egutegia presta dezan, trena Iruñera heldu arte.

3. Nafarroako AHTaren eta euskal Y-aren arteko lotunea Ezkion barrena behin betikoz ebatz dezan eta lotunea eraikitzeko proiektuaren lizitazioa egin dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Eleduna: Javier García Jiménez

---

## 11-23/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Gazako zerrendako gatazkako aldeei exijitzen baitzaie nazioarteko legeria bete dezaten, bereziki NBEaren ebazpenak

*EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gazako zerrendako gatazkako aldeei exijitzen baitzaie nazioarteko legeria bete dezaten, bereziki NBEaren ebazpenak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Parlamentuaren azaroaren 2ko (osteguna) Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena.

Aurrekaririk gabeko gertakariak eta Gazako zerrendan gertatzen ari den egoera ikusirik, zeinetan milaka zibil hildako baitaude, horien artean 2.000 haur baino gehiago, honako erabaki-proposamen hauek aurkezten ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak gatazkako alderdiei exijitzen die nazioarteko legeria bete dezaten, bereziki NBEaren ebazpenak.

2. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Israelek milioi bat pertsona baino gehiagori emandako ebakuazio-agindua, nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa den lekualdaketa behartua eragin baitu, eta laguntza humanitarioa sar dadila eskatzen du, herritarrek berriz ere eskura izan ditzaten ura, elektrizitatea, elikagaiak, botikak eta bizitzeko funtsezko den oro.

3. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Gazako biztanleei ezartzen ari zaien zigor kolektiboa; izan ere, Gatazka Armatuen Legearen arabera –besteak beste, Genevako eta Hagako Konbentzioak biltzen ditu–, zigor kolektiboa,

gerra-krimena izateaz gain, gizateriaren aurkako krimen gisa ere tipifikatuta dago.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du jardun dezan Nazioarteko Legeria indarduna betetzeko eta betearazteko duen betebeharri helduz, eta berehalako su-eten iraunkorra exiji dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an.

Foru parlamentariak: Laura Aznal Sagasti, Pablo Azcona Molinet, Carlos Guzmán Pérez

---

## 11-23/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroan emakumeen eskubideak babesteko eta genero indarkeria desagerrarazteko konpromisoa

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroan emakumeen eskubideak babesteko eta genero indarkeria desagerrarazteko konpromisoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroan emakumeen eskubideak babesteko eta genero-indarkeria desagerrarazteko Nafarroako Parlamentuak duen konpromisoa berrestekoa, 2023ko azaroaren 2ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatuko da.

Indarkeria matxista emakumeek munduan pairatzen dituzten desberdinkerien ondoriorik izugarriena da. Giza eskubideen urraketa bat dira, eta osotasunezko demokrazia bat garatzeko oztopo nabarmena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna askatasunezko edozein gizarte-ereduren bihotzean dago eta.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzkoa, inflexio-puntu bat da Espainian, genero-indarkeriaren izaera eta ezaugarriak modu zehatzean definitzen baititu, eremu pribatuan zein publikoan gertatzen diren gainerako indarkeria-modu halaber gaitzesgarrietatik bereiziz.

Talde parlamentarioek, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna onetsi zuten 2017ko abenduan, eta itun hori beste mugarri handi bat izan zen genero-indarkeria ikusarazteko, hura desagerraraztea estatu-arazo bihurtzeko, bai eta hari aurre egiteko baliabideak, ekintza koordinatuak eta gaitasunak mobilizatzeko ere.

Alabaina, eta aurrerapauso horiek ekarritako hobekuntzak gorabehera, datuak oraindik ere gorgarriak dira. 2003ko urtarrilaren 1etik, genero-indarkeriaren biktima izan ziren emakumeak zenbatzen hasi zirenetik alegia, 1.236 emakume hil dituzte Espainian.

2023a urte bereziki larria izaten ari da, 51 emakume erail baitituzte gure herrialdean; horietatik 1, Nafarroan.

Erailketa emakumeen aurkako indarkeriaren adierazmolderik dramatikoena da, baina emakumeek indarkeria matxistaren modu desberdinak pairatzen dituzte egunero. Emakume izate hutsagatik.

1/2004 Lege Organikoak ekarri zuen emakumeen aurkako indarkeriak delitu ikusezina izateari uztea, baina Sexu Askatasuna Bermatzeko irailaren 6ko 10/22 Lege Organikoak beste aurrerapen bat ekarri du, sexu-indarkeriatik modu transbertsalean babesten duen zuzenbidezko arkitektura berri bat taxutzen duelako.

Nafarroak urteak daramatza indarkeria matxistaren mota orori aurre egiteko politika publikoak egiten, 14/2015 Foru Legea baliatuta. Lege hori aho batez onetsi zen, eta bultzada politikoari eta mugimendu feministaren bultzadari esker, erkidego erreferente bihurtu gaitu indarkeria matxistaren aurkako borrokan.

Laster irekiko da sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei 24 orduko arreta integrala emateko zentro berria.

